

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Luis Lizundia

*Durango,
Bizkaia (1938)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

DUR-051

- **Proiektua:** Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Data:** 2013-11-23
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Bittor aitzindaria eta ekintzailea

- **Erref:** DUR-051/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:00:22. **Bukatu:** 00:02:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Otxandion etxegintza proiektuarekin zebilenean ezagutu zuen. Eta eibartarren bidez, Bittor Eibarren zebilenean, San Martin, Laspiur, Serafin Basauri eta Arestirekin; Arestik ere Eibarren lan egiten zuen eta. Gero Gerediaga Elkartean, Bittor zuzendaritzan egon baitzen. Berritzailea eta ekintzailea izan zen. Pioneroa. Nekazaritza alorrean, DIBA kooperatibaren sorreran egon zen, besteak beste. Durangoko Azokan ere bai.... Euskararen alorrean ekarpen interesgarriak egin zituen. Batzuek kritikatu dute autodidakta zelako, baina orduan gehienak hala ziren.</p>

2. 60 eta 70 hamarkadetako ekintzetan beti hantxe Bittor

- **Erref:** DUR-051/003
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:02:37. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika

Laburpena:

Bittorrek EHAS alderdiaren sorreran ere bere eragina izan zuen. Haren Oletako baserrian egin zen alderdiaren hasierako zenbait bilera. Bazituen bere iritzi politikoak. Abertzaletasunaren eragina zuen barru-barruan, baina Eibarko ikuspegi soziala ere bai. Behin, Juan Ajuriagerra EAJko buruzagiarekin berba eginda gero, zera esaten ei zuen Bittorrek: "Juanitok ez zaittue ulertzen gazteok". Beti heterodoxia puntu batekin, baina beti laguntzeko prest. Bittor 'rara avis' zen; ezin da konparatu Txillardegi edo Mitxelenaekin; baina bazekien haiei ere bere puntu kritikoa hartzen. 60 eta 70 hamarkadetako inizatibetan, han agertzen zen Bittor, beharbada azkenengo lerroan, baina beti hantxe.

3. Euskaltzaindiko bilerak eta Eibarko Eskola

- **Erref:** DUR-051/005
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:09:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Euskaltzaindiko bileretara sarri agertzen zen Bittor. Batzuek ez zuten estimatzen, baina beste batzuek asko, adibidez Juan San Martinek. San Martin ere autodidakta zelako, agian. Bazekien gazteekin eta heterodoxoekin konektatzen. Eskola ona izan zuen: Eibar. San Martin, Laspiur, Aresti...

4. "Erioak Eresan, Butroeko alabea Plentzian" Refranes y Sentencias liburuko esaera eztabaidatua

- **Erref:** DUR-051/007
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Euskara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

"Erioak Eresan, Butroeko alabea Plentzian" Refranes y Sentencias liburuko esaera dela eta, Mitxelenarekin polemika izan zuen. Txostena egin zuen Bittorrek. Euskaltzain batzuek ez zuten nahi izan azaltzerik, baina Villasantek, batzarrean irakurtzeaz gain, argitaratu egin zuen. Bazen Frantziskotarren komentu famatu bat Gasteizen, eta badirudi han ondu zela obra hau, leku ezberdinetako iturriekin. Bittor Gasteiz zalea zen, ez hainbeste Bilbo zalea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com